

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 13/2020 Foru Dekretua, apirilaren 7koa. Onestea nekazaritzako ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntzen oinarri arautzaileen aldaketa eta 2020rako laguntza-lerro honen deialdia

Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 31/2016 Foru Dekretuaren bidez, M04.1 neurriari dagozkion "Nekazaritza ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntzak" arautzeko oinarriak onetsi ziren, EAEko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren testuinguruan, 1305/2013 Araudian ezarritako mugen barruan, baita laguntza lerro horren 2016ko deialdia ere.

Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 10/2017 Foru Dekretuaren bidez, oinarri arautzaile horiek aldatu ziren hein batean eta 2017ko laguntzen deialdia egin zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 13ko 10/2018 Foru Dekretuak hala aginduta, Europako Batzordearen C(2017) 3859 erabakiaren bidez onetsi zen EAEko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren bigarren aldaketaren ondorioz, berriro ere aldatu ziren esandako oinarriak, aldaketa haren arabera egokitzeko eta oinarrien alderdi batzuk zehaztu eta argitzeko; beste alde batetik, 2018ko ekitaldiko laguntzen deialdia onetsi zen.

Europako Batzordearen 2018ko abuztuaren 13ko C(2018) 5542 azken erabakiaren bidez onetsi zen EAEko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren hirugarren aldaketaren ondorioz, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 26ko 10/2019 Foru Dekretuaren bidez, berriro ere aldatu ziren aipatutako oinarriak eta 2019ko ekitaldiko deialdia ere onetsi zen.

C(2019) 6120 azken erabakiaren bidez, Europako Batzordeak EAEko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren laugarren aldaketa onetsi zuen 2019ko abuztuaren 12an, zeinak laguntza lerro honi eragiten baitio, eta, beraz, beharrezkoa da oinarri arautzaileak aldaketa horien arabera egokitzea; horrez gain, beharrezkoa da beste aldaketaren bat egitea, zeinak, Europako Batzordearen erabakiak ezarria ez izan arren, oinarriak hobeto ulertzen eta aplikatzen lagunduko baitu.

Bestalde, kontuan izanik kreditu nahikoa dagoela laguntza lerro hori izapidetzeko Arabako Foru Aldundiaren 2020ko gastu aurrekontuan, beharrezkoa da deialdia onestea.

Foru dekretu hau idazteko, kontuan hartu da makumeen eta gizonen benetako berdintasunerakomartxoaren 22ko 3/2007 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritako arau esparrua.

Nahiz eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua aldatu zuen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak, zeinaren bidez alarma egoera deklaratu baita COVID-19k eragindako osasun krisi egoera kudeatzeko, xedatzen duen, alarma egoerak irauten duen bitartean, oro har etetea abian diren lizitazioen terminoak, epeak edo izapidetza, haiek ez eteteko erabaki arrazoitua hartzeko aukera ere onartzen du.

Aintzat hartuta dirulaguntza deialdi honen interes publikoa, diruz lagundutako jarduera ezinbestekotzat jotzen da interes orokorrerako.

Aginduzko txostenak ikusi dira, eta haietan oinarriturik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea honako aldaketak egitea Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 31/2016 Foru Dekretuak onetsi eta Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 10/2017 Foru Dekretuak, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 13ko 10/2018 Foru Dekretuak eta Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 11/2019 Foru Dekretuak aldatutako "Nekazaritza ustiattegietan inbertsioak egiteko laguntza" M04.1 neurrirako laguntzen (31/2016 Foru Dekretuaren eranskinean ezartzen dira) oinarri arautzaileetan:

1. 8. artikulua ("Kostuak neurtzea eta inbertsioak balioztatzea") 6.5 apartatua aldatzea, 6.6 apartatua ezabatzea eta 6.7 eta 6.8 apartatuak berriro izendatzea, hain zuzen, 6.6 eta 6.7 apartatuak izatera pasatuz, hurrenez hurren. Honela geratuko dira idatzita:

8.6.5 Patatak biltzeko makinetan egindako inbertsioak:

A. Ustiattegiko azalera erabilgarria:

Ustiategiak 5etik eta 10 ha-ra bitartean baditu patataren laborantzarako, patatak biltzeko makinetarako aurrekontu lagungarriaren muga, laguntza lerro honen oinarri izango dena, ezin izango da 5.000,00 eurotik gorakoa izan hektarea bakoitzeko.

Ustiategiak 10 hektarea baino gehiago baditu patataren laborantzarako, diruz lagundu daitezkeen aurrekontua mugatu egingo da artikulua honetako B apartatuan xedatutakoaren arabera.

Inbertsioa NMEK batek egiten badu, dirulaguntza jaso ahal izateko gutxieneko azalera 40 ha izango da kide guztien artean.

Labore mota horretarako erabiltzen den hektarea kopurua honela zenbatuko da, kanpaina honetan Nekazaritza Politika Bateratuari (NPB) aitortutako azaleraren arabera:

B. Biltzeko makina mota:

Patata biltzeko makina, bi ildokoa: 110.000 euro.

Patata biltzeko makina, ildo batekoa: 90.000 euro.

8.6.6 Atal honetan, 8.6an, hain zuzen, ezarritako moduluei dagokienez, ez dira zenbatuko ustiategian dauden eta 10 urte baino gehiago duten diruz lagundutako makinak.

8.6.7 5.7 eta 5.10 artikuluen kariatara eskatutako inbertsioetarako, dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontua kostuak neurtzeko eta xedearen arabera diruz lagundu daitezkeen gehieneko muga irizpide orokorren pean geratuko dira; halaber, aurkeztutako inbertsio aurrekontutik seguruengatik ordaindutako edo ordaintzeko zenbatekoa kenduko da.

2. Aldatzea gastu onargarriaren mugak ezartzen dituen 9. artikulua 5. paragrafoa. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

9.5 Diruz lagungarria den inbertsioaren gehieneko zenbatekoa, NMEK direlakoak izan ezik, 110.000,00 eurokoa izango da NLU eta urte bakoitzeko. Honako salbuespena izango du:

Muga hori salbuetsi ahal izango da, baldin eta inbertsio hori faseka gauzatu ezina bada aholkularitza zentro aitortu baten irizpidearen arabera, edo eskaera egin aurreko urtebeteko epean gertatutako ezbehar edo hondamendiaren kasuan; kasu horretan, beste muga batzuk onar daitezke, aurrekontu baliabideen arabera.

3. Ezabatzea LGP-ren 2015-2020 aldiko inbertsio planei buruzko 9. artikulua 7 apartatua.

4. Aldatzea espedienteak onuradun motaren arabera sailkatzeko irizpideak arautzen dituen 10.1 artikuluko 1 apartatua. Honela geratuko da idatzita:

10.1 Onuradunaren tipologia:

10.1.1 Banakako eta titulartasun partekatuko ustiategiei dagokienez, ondoko puntuazioa aplikatuko da, metatu ezin daitezkeena:

- 6.1 eta 6.3 neurriei lotutako sektorean lehen aldiz instalatzen diren titularrek sustatutako inbertsio proiektuak (azken neurri hori estatuaren laguntzarekin garatu da). 35 puntu.

- Dagoeneko instalaturik dauden nekazari gazteek (41 urtetik beherakoek) sustatutako inbertsio proiektuak. 30 puntu.

- Titulartasun partekatu batek sustatutako inbertsio proiektuak, edo titularra emakume nekazaria denean, edo pertsona juridikoek sustatutakoak, baldin eta kapital sozialean edo banaketa kuotan ATP emakumeen esku dauden partaidetzaren ehuneko gutxienez ehuneko 50ekoa bada, elkartutako pertsona fisikoak bi badira, edo ehuneko 40koa elkartutako pertsona fisikoak hiru edo gehiago badira. 25 puntu.

- 41 urtetik gorako titularrek sustatutako inbertsio proiektuak, neurri honetan eskatzen diren betekizunen arabera sektorean instalatzen direnak. 15 puntu.

- Izan litezkeen beste onuradun batzuek sustatutako inbertsio proiektuak. 10 puntu.

Titularren bat tipologia bati baino gehiagori atxiki ahal bazaio, puntuak ezin izango dira metatu, eta puntu gehien ematen dizkion tipologia esleituko zaio.

5. Aldatzea inbertsio planaren aldaketak eta gauzatzeko epea arautzen dituen 15. artikuluko 1. apartatua. Honela geratuko da idatzita:

15.1 Diruz lagundutako inbertsioak, hobekuntzak edo jarduketak laguntza emateko ebazpenean ageri den apean gauzatu beharko dira; nolahi ere, eskabidea aurkezten den unean bertan hasaraz daitezke, eta eraikuntza eta instalazio finkoei dagokienez, hasi gabeko akta aurkezten den unetik bertatik, espedientearen ebazpena negatiboa izateari kalterik egin gabe.

6. Aldatzea I. eranskinean jasotzen den "Ustiategiaren marjina garbia"ren definizioaren bigarren paragrafoa. Honela geratuko da idatzita:

Marjina garbi teorikoa kalkulatzeko, Garapen Ekonomikoko eta Lehiakortasuneko Sailaren 2016ko martxoaren 31ko Aginduan xedatutakoa edo unean-unean indarrean dagoen legeria bete behar da.

Enpresa plana egitean marjina garbia kalkulatzeko, NPEren lehenengo zutabeko dirulaguntzak soilik hartuko dira kontuan, alde batera utzita behi ume-hazleen hobaria.

7. Nekazaritzako makineriaren tipologia ezartzen duen II. Eranskinaren B apartatuan gehitzea uzta biltzeko makina, teknologikoki aurreratutako makineriari dagokiona, eta C apartatuan, ildo-bizkargilea eta patatak landatzeko makina, makineria berriari dagokiona.

8. Aldatzea nekazaritzako makinen tipologia ezartzen duen II. Eranskineko azken paragrafoa, eta honela idatzita geratzea:

Aurrerapen teknologikoen arabera, deialdi bakoitzeko eskaerak aztertzekeo prozesuan, makina berriak gehitu ahal izango zaizkie kasu bakoitzean zeuden aurreko zerrendei, horretarako berariaz eratu eta Nekazaritza Garatzeko Zerbitzuko buruak, Nekazaritza Egituraren eta Landa Azpiegituraren Ataleko buruak eta atal horretako teknikariek osatzen duten berariazko batzorde tekniko batek gainbegiratuta.

9. Xedeak ezartzen dituen III. Eranskinean, bi helburu berri hauek gehitzea:

- Abeltzaintzako mekanismo eta/edo instalazio mugigarriak.

- Nekazaritzako mekanismo eta/edo instalazio mugigarriak.

10. Aldatzea eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak ezartzen dituen IV. Eranskina. Honela geratuko da idatzita:

Hauek dira aurkeztu beharreko agiriak eskaera bakoitzarekin batera, nahiz eta, eskaera bakoitzean planteatutako inbertsioen arabera, agiri osagarriak eskatu ahalko diren:

A. Oro har:

1. Inprimaki normalizatua, behar bezala beteta eta izenpetuta.
2. Ustiatetikiko kide guztien NAN/IFZren fotokopia.

3. Ustiatetikiko kide guztiek Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria, merkataritza sozietateetan izan ezik, pertsona juridikoak bakarrik aurkeztuko baitu, eta eskatzailearen zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Eskatzaileak Nekazaritza Saila eskuordetu dezake kasuan kasuko zerbitzuei apartatu honetan adierazitako ziurtagiriak eta agiriak eskatzeko.

4. Soldatapeko lanaren egiaztapena, Gizarte Segurantzak deialdiaren aurreko urtean egindako kotizazioen ordainketak justifikaten dituena, langileen zerrenda nominala aurkeztuta.

5. Pertsona edo erakunde eskatzaileak bere gain hartzen dituen konpromisoen orria, titularrak edo legezko ordezkariak sinatua.

6. Lehentasunezko ustiatetia izatearen ziurtagiria, hala badagokio.

7. Ekoizpen ekologiko ziurtatuko erregistroetan edo kalitate programetan inskribatu dela ziurtatzen duen agiria, hala dagokionean.

8. Nekazaritza eta ingurumen neurri bati helduta egotea ziurtatzen duen agiria, hala dagokionean.

9. Ustiatetiaren urteko fakturazioaren egiaztetia (azken 3 ekitaldiak onartuko dira), hala dagokionean.

10. Ekoizpena merkaturatzeko erabilitako ekoizpen kooperatibaren edo nekazaritza ekoizleen taldearen ziurtagiria eta interesdunak egindako urteko fakturazioarena, hala dagokionean. Nekazaritza ekoizleen talde baten bidez merkaturatuko balu, nekazaritza ekoizleen taldea EAEko nekazaritza ekoizleen taldeen erregistroan izen emanda egotearen ziurtagiria ere bai.

11. Beste erakunde batzuei inbertsio bererako laguntza eskatu ez izanaren aitortpena.

12. Hala dagokionean, ustiatetikiko bazkide langileen 10-T agiria eta/edo langileen zerrenda nominalaren agiriak, Gizarte Segurantzak deialdiaren aurreko urtean egindako ordainketaren egiaztetia.

13. Ustiatetian 06.1 neurriaren bitartez sartzan diren gazteen eta 6.1 neurriaren bitartez instalatu aurreko urrats gisa erakunde sustatzaile publiko batek legez eraturako nekazaritza enpresen mintegi batean prestakuntza jasotzen duten gazteen kasuan, eskabidea aurkezteko unean 3.1 artikuluko baldintza guztiak betetzen ez badituzte, enpresa planari jarraituz instalazio prozesua amaitu aurretik haiek betetzeko konpromisoa.

14. Inbertsio plana eta haien bideragarritasunaren ikerketa, 6.1 neurriaren bitartez instalatu aurreko urrats gisa erakunde sustatzaile publiko batek legez eraturako nekazaritza enpresen mintegi batean prestakuntza jasotzen duten gazteen kasuan.

B. Eskatzailea pertsona fisikoa edo titulartasun partekatuko nekazaritza ustiatetia bada; gainera, hauexek aurkeztu beharko ditu:

1. Lan bizitzaren txostena.

2. Azken ekitaldian aurkeztutako PFEZ zergaren aitortpena edo, hala badagokio eskaera egin aurreko hiru ekitaldietako aitortpenak, ustiatetikiko partaide guztien nekazaritzako eta nekazaritza kanpoko dirusarrerak egiaztatuta.

Eskatzaileak Nekazaritza Saila eskuordetu dezake kasuan kasuko zerbitzuei apartatu honetan adierazitako ziurtagiriak eta agiriak eskatzeko.

3. Eskatzailea lanbide gaikuntza eta gaitasun nahikoaren jabe dela egiaztatzen duen agiria, egiaztapen hori gerora aurkeztu ahal diren kasuetan izan ezean.

4. Lanbide gaikuntza eta gaitasun nahikoa egiaztatuko delako konpromisoa, horretarako ezarritako epearen barruan, hala badagokio.

C. Eskatzailea mota hauetako pertsona juridikoa bada: sozietate zibila, ondasunen erkidegoa edo jaraunspenezko erkidegoa, izaera orokorrean eskatutako agiriez gain, ondoko hauek ere aurkeztu beharko ditu:

1. Aurreko A eta B apartatuetan eskatutako agiriak, ustiategiaren bazkide edo kide guztienak, bai eta horietako bakoitzak sinatutako konpromisoen agiria ere.

2. Eratzeari edo aldatzeari buruzko eskritura publiko eguneratuaren kopia eta jatorrizkoa konpultsatua izan dadin, baldin eta eskritura hori ez badago Nekazaritza Ustiategien Erregistroan.

3. Bazkideen zerrenda nominala eta sozietatearen kapitalaren banaketa edo partaidetzaren ehunekoa.

4. Jaraunspenezko erkidegoei dagokienez, indibisio ituna, gutxienez, 6 urtekoa, eskaera aurkezten den egunetik aurrerakoa. Elkarteko kide guztiek sinatu beharko dute ituna.

D. Eskatzailea sozietate zibila, ondasunen erkidegoa edo jaraunspenezko erkidegoa ez den pertsona juridikoa bada, izaera orokorrean A eta B apartatuetan eskatutako agiriez gain, ondoko hauek ere aurkeztu beharko dira:

1. Pertsona juridikoaren Estatutuen kopia eta jatorrizkoa konpultsatua izan dadin, baldin eta eskritura hori ez badago Nekazaritza Ustiategien Erregistroan.

2. Artezkaritza kontseiluaren osaera eskaera egitean, eta bazkideen zerrenda nominala.

3. Laguntza kudeatu eta izapidetzeko helburuz, kide jakin batzuei erakundea ordezkatzeko baimena ematen dielako erabakiaren ziurtagiria, kide horien izena, abizena, NAN zenbakia eta kargua adierazita.

4. Aurreikusitako inbertsioak gauzatzeko, Batzarrak hartutako erabakiaren egiaztagiria.

5. NMEK direlakoei bazkideei eta haien partaideei buruzko agiriak aurkeztu beharko dituzte, hala badagokio, eranskin honen ataletan adierazitakoari jarraiki: A2, A3, A10, B1, B2, B3, B4, C1, C2, D1, D2 eta D8.

6. Hirugarrenentzako lanik egiten duten NMEK direlakoei dagokienez, lan horiek kooperatibaren guztizko fakturazioaren ehuneko 40tik beherakoa delako konpromisoa.

7. NMEK direlakoei dagokienez, bazkideek, aurretiaz eta sozietatearen kapital gisa, eskatutako inbertsioaren guztizko balioaren ehuneko 20 ordaindu dutelako egiaztapena.

8. Batzar orokorraren erabakiaren ziurtagiria, zeinetan agertu behar baita, titulurik eskualdatu baldin bada, bermatuta geratu behar dela inbertsioa mantentzeko konpromisoaren aldi bazkideen ehuneko 50 gutxienez LNJ direla eta kapital sozialaren edo banaketa kuotaren ehuneko 50 gutxienez LNJ diren kide edo bazkideena izan behar dela. Hori estatutuetan agertuko balitz, ez litzateke nahitaezkoa izango aurkeztea.

NMEKen kasuan, LNJ bazkideen eta kapital sozialaren edo banaketa kuotaren portzentajea ehuneko 75 izango da.

9. Hala dagokion kasuan, aurkeztutako sozietateen zergaren aitortpenaren kopia, entitate sortu berriek izan ezean, betiere aipatutako zergak likidatzeko legezko epea igaro ez bada.

10. Eskatzaileak Nekazaritza Saila eskuordetu dezake kasuan kasuko zerbitzuei apartatu honetan adierazitako ziurtagiriak eta agiriak eskatzeko.

11. Konpromisoen agiria, pertsona juridikoaren ordezkariak edo berak eskuordetutakoak sinatuta.

E. Aurkeztu beharreko agiriak, egingo diren inbertsioen arabera:

Makinak eta ekipoak erosteko:

Proforma faktura edo inbertsioaren aurrekontua.

Nekazaritza eta abeltzaintzako eraikuntzak egiteko eta hobekuntzak egiteko:

Obra proiektua edo gauzatu beharreko lanen aurrekontua.

Obra lizentzia edo halakorik behar ez dela egiaztatzen duen udal agiria.

Katastroko ziurtagiria edo eraikina egingo den edo aldatuko den lurzatiaren edo lurzatiaren jabetza egiaztatzen duen agiria.

Hala dagokionean, jabearen baimena diruz laguntzen diren inbertsioak gauzatzeko.

Nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioetarako:

Obra proiektua edo gauzatu beharreko lan eta instalazioen aurrekontua.

Obra zibilari lotuta egonez gero, obra lizentzia.

Nekazaritzako mekanismo eta/edo instalazio mugigarriak.

Proforma faktura edo inbertsioaren aurrekontua.

Abeltzaintzako mekanismo eta/edo instalazio mugigarrietarako:

Proforma faktura edo inbertsioaren aurrekontua.

Ureztapen instalazietarako:

Ureztatzaile elkarte batekoa bada, eskatzaile bakoitzarentzat banako ziurtagiria, eranskinaren arabera.

Gainerako kasuetan, ureztapena ezarriko den lurzatiaren ur emakida egiaztatzen duen agiria.

Aurrekontua, identifikatutako lurzatiaren zerrenda adierazten duena, udalerrri, poligono, lurzati eta SIGPAC esparruen arabera, azalera adieraziz. Aurrekontua lurzati bakoitzarentzat egingo da, eta aurrekontu globala aurkeztu ahalko da lurzatiek laborantza unitate bat eratzen badute.

Ureztapen sistema egingo den lurzatiaren edo lurzatiaren katastro deskribapena edo jabetza egiaztatzen duen dokumentua.

Hala dagokionean, jabearen baimena diruz laguntzen diren inbertsioak gauzatzeko.

Lursailak egokitu eta itxiturak jartzeko:

Obra proiektua edo gauzatu beharreko lanen aurrekontua.

Obra lizentzia edo halakorik behar ez dela egiaztatzen duen udal agiria.

Jarduera egiteko erabiliko diren lursailen zerrenda, udal, poligono, lursail eta SIGPAC esparruen arabera, ondokoak adierazita: azalera, edukitza erregimena eta lurzati bakoitzaren aurrekontua.

Jarduera egiteko erabiliko den lurzatiaren edo lurzatiaren jabetza egiaztatzen duen katastro deskribapena edo agiria.

Hala dagokionean, jabearen baimena diruz laguntzen diren inbertsioak gauzatzeko.

Abereak erosteko:

Aurrekontua.

Fruta arbolen sail erregularrak landatzeko:

Aurrekontua.

Landaketa egiteko erabiliko diren lursailen zerrenda, udal, poligono, lursail eta SIGPAC esparruen arabera, ondokoak adierazita: azalera, edukitza erregimena eta lursail bakoitzaren aurrekontua.

Landaketa egiteko erabiliko den lurzatiaren edo lurzatiaren jabetza egiaztatzen duen katastro deskribapena edo agiria.

Hala dagokionean, jabearen baimena diruz laguntzen diren inbertsioak gauzatzeko.

Ekipo informatikoetarako:

Aurrekontua.

Bioenergia ekoizteko inbertsioak:

Obra proiektua edo gauzatu beharreko lanen aurrekontua.

Obra lizentzia edo halakorik behar ez dela egiaztatzen duen udal agiria.

Inbertsioei lotutako kostuetarako:

Aurrekontua.

Bigarrena. Onestea dirulaguntza lerro honen (LGNEFek jartzen du dirulaguntzen finantzaketaren ehuneko 53) 2020ko ekitaldiko deialdia, honako ezaugarri hauekin:

a) Lekua, epea eta era: 30 egun naturaleko epean, foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ustiategiaren kokalekuko Nekazaritzako Eskualde Bulegoan edo Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuan. Hori guztia, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe. Epearen azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Eskaerak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 12ko 31/2016 Foru Dekretuaren IV. eranskinean, foru dekretu honetan emandako idazketan, zehaztutako dokumentazioa ere erantsi beharko zaio.

b) Hautapen irizpideak: deialdi honi lotutako laguntzak emateko espedienteen hautapen irizpideak izango dira oinarri arautzaileen 10. artikulua foru dekretu honetan ezarritakoak.

c) Laguntzen zenbatekoak: 2020ko deialdiari lotutako laguntzen zenbatekoak oinarri arautzaileen 11. artikulua ezarritakoak izango dira.

d) Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldirako gastuen aurrekontuaren 40.1.01.42.01.770.00.01 "Nekazaritza ustiategietako inbertsioak. Zuzeneko laguntza. Deialdi berria" partidaren kostura, 2.533.000,00 euro guztira, urteko hauetan:

- 2020: 1.433.000,00 euro (Xedapen erref.: 20.1.20.105.1256/000)
- 2021: 800.000,00 euro (Xedapen erref.: 20.3.21.105.31/000)
- 2022: 300.000,00 euro (Xedapen erref.: 20.3.22.105.4/000)

Esandako kredituak zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21.2.b) artikuluan ezarritako mugen barruan, hasieran gordetako kredituaren ehuneko 10eraino, baita ere aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez.

Hirugarrena. Deialdia ebatzi ondoren, aurrekontu partidan kreditu gehikuntzarik geratuz gero, emandako dirulaguntzei uko egin, deuseztatu edo zenbateko txikiagoak ordaindu direlako, eta aurrekontuko kreditua nahikoa izan ez delako zenbait eskaerari erantzun ez bazaie, kreditu hori eskaera horietan erabiliko da, dirulaguntza hauen oinarri arautzaileetan ezarritako lehentasun irizpideei jarraiki.

Laugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Bosgarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE